



• PERTSONAIA •

ñaki Goirizelaia

Gorbatak gehiegi estutzen dionean abarkak jantzi eta zortzinoa dantzatzen omen du.

UXUE ALBERDI

Argazkiak: Dani Blanco

«Ez da erraza irakasle elebidunak topatzea»

Bizitza osoa EHUri lotuta. Nolatan?

Uste dut unibertsitaterik gabe ez dagoela etorkizunik eta, horretaz gain, bizimodu bat ere izan da. Unibertsitatetik kanpo ahalegin txiki batzuk egin ditut, baina munduan egiteko dau den gauza guztien artean, ederrena jakintza sortzea eta transmititzea da. Horretan oso ondo sentitzen naiz.

Errektoretzarako hauteskundeetan Marisol Esteban izan zenuen lehiakide. Zer ikasi zenuen harengandik?

Beti ikasten da. Hark beste unibertsitate eredu bat dauka buruan, eta hortik ere ikasten da. Marisolek ere bozka asko lortu zituen hauteskundeetan, eta horrek esan nahi du unibertsitate honetan badagoela multzo bat berarekin bat egiten duena, eta hortik ezinbestean ikasi behar dut etorkizunean unibertsitate hobe izango badugu.

Unibertsitateko hauteskundeak irabazi zenituela jakin zenuenean, Juan Ignacio Perezi, zure aurretik errektore zenari eskaini zenion garaipena. Zergatik?

Iñako, Juan Inazio Perez, oso errektore ona izan dela uste dut, eta lau urte gogor bizi izan ditu. Gauza batzuetan asmatuko zuen eta besteetan ez, baina azken urtean injustizia asko jasan behar izan ditu, eta batzuetan, gainera, oso modu txarrean plazaratu dira. Tentsio asko, sufri-mendu asko, momentu gogor asko pasa ditugu azken urtean eta nire garaipena nolabaiteko errekonozimendua zen harentzat. Hark egindako lana eta ekarpena baloratu nahi nituen.

Zeintzuk izan dira aipatu dituzun injustizia horiek?

Ezetzaren injustizia. Ia-ia bankarrotan zegoen unibertsitate bat hartu, 30 milioi euroko defizita zuen unibertsitate bat hartu eta, lau urtez lanean aritu ondoren, ezetza entzun beharra. Unibertsitatea bide egokian ipintzea lortu ostean, finantza arazoa konpondu eta bide berriak martxan jarri ostean oniritzia jasotzea zatekeen zuzenena. Egindako lanaren aitortpena. Ezetz esatea, ezetz eta ezetz eta berriro ezetz esatea ez da zuzena. Unibertsitatean

eztabaidarako aukera izan behar genuke, gutxienez. Oso ondo irudituko litzaidake proiektu ezberdinen arteko eztabaida egotea eta Iñako galtzaile ateratzea, baina injustiziarik handiena unibertsitatearen etorkizuna ezetzaren eskuetan uztea da.

Juan Ignacio Perezek ez zuen berriz aukeratua izatea lortu. Zerk egin zuen huts?

Ez dut uste gauza bakarraren ondorio izan zenik. Iñakok proiektu asko ipini zituen martxan lau urte horietan, eta proiektu bakoitzak kaltetuen zerrenda txiki bat izan zuen. Osagarriekin haserretu ziren batzuk; konponketa lanekin beste batzuk... Lan eskaintza publikoa egin zuen langileen artean, azken 18 urteetan egin ez zena, eta gehienek begi onez ikusi zuten arren, gutxi batzuk kaltetuta sentitu ziren... Asmo berri bakoitzarekin lorturiko emaitzak oso onak izan dira, baina proiektu berriek beti sortzen dituzte aurkako iritziak, sektore desberdinetan, kasu bakoitzean. Multzo horiek zaku berean bilduz gero, asko dira, eta bozkatzeko aukera bakarra dagoenean jendeak errazago egiten du ezetzaren aldeko hautua.

“Injustiziarik handiena unibertsitatearen etorkizuna ezetzaren eskuetan uztea da”

Aztertu dituzue eginiko akatsak? Zer aldatuko duzue?

Komunikazio arazoa eduki dugu ikasleekin, irakasleekin, langileekin... Hori hobetu behar dugu, ez gara gai izan egindako lanak ondo azaltzeko, eta erronka polita dugu hor. Ondo entzun behar dugu, eta erantzuten asmatu.

Hizkuntza Politikaren ingurukoak erabakigarriak izan dira azken hauteskundeetan. Euskararen Plan Gidaria oinordetzan hartuko duzu. Zertan da plan hori? Zer asmori erantzuten dio?

EAEko ikasleen %50ek selektibitatea euskaraz egiten du. Horien artean %45 inguru matrikulatzen dira unibertsitatean euskaraz. Eta guk zer eskaintzen dugu? Lehen zikloko karreretan enborreko ikasgaien %75 eskaintzen da euskaraz, eta bigarren zikloko karreretan, gutxiago. Irakasleen artean elebidunak %35 dira. Argi dago desoreka dagoela. Baina ezin dugu ahaztu orain dela hamar urte desoreka askoz ere handiagoa zela. Pausoak eman

1958an jaio zen mungiarra. Inge-
niarritza telematikoan katedradu-
na. Karrera amaitu bezain pronto
unibertsitatean sartu zen, eta
bertan eman du bizitza profesio-
nal osoa. 1993an, minbiziaren
ondorioz, lana utzi behar izan
zuen bi urtez. Behin gaixotasuna
gaindita, betiko lantokira itzuli
zen. Juan Ignazio Perezek,
EHUko errektore ohiak, Ikaske-
ten Antolamendurako errektore-
orde eta Bizkaiko Campuseko
errektore-orde izendatu zuen.
Perezek errektore izaten jarrai-
tzeko hauteskundeetan euzkoa
jaso ostean, kargurako aurkeztu
zen iaz, Marisol Esteban aurka-
riarekin batera. EHUko errektore
da 2009ko urtarrilaren 9tik. Mun-
giako dantza taldeko zuzendari
ere bada.

ditugu, baina gehiago eman behar dira. Plan
Gidariak esaten duena da, etorkizunari begira,
graduak euskaraz eta espainolez eman behar-
ko direla, eta graduondoko edo masterretan
espainolaren eta euskararen presentzia pareki-
dea izan beharko dela. Horrekin lotuta, beste
hizkuntza batzuk ere sartu behar dira. Gu hasi
gara dagoeneko ingelesa sartzen, eta ingelesak
ere presentzia izan behar du graduetan eta,
batez ere, masterretan. Gainera, irakasle elebi-
dunen kopurua %43ra igo behar litzateke,
Plan Gidariaren arabera. Hori dena lau urtetan
lortzekoa zen, baina ia urte bat galdu dugu
jada, plan gidaria onartu zenetik urte osoa
hauteskundeetan igaro baitugu. Berrito mar-
txa hartu beharra dago.

Nolako hizkuntza politika garatuko duzue Bolognako markoan? Zein arazo eta zein auke- ra eskaintzen ditu marko horrek?

Batek ez du bestearekin zerikusirik. Hizkuntza
politikak ez dauka zerikusirik Europako uni-
bertsitateen goi mailako espazio horrekin.
Gure hizkuntza politika Plan Gidarian oinarri-
tzen da, eta ez dauka zerikusirik Bolognarekin.

Bolognako markoak ez dio eragiten hizkuntza gutxituen trataerari?

Nik ez dut horrela ikusten, badakit kritika
horiek entzuten direla, baina ez nago ados.
Gure esku dago. Asmatzen ez badugu gure
errua izango da, ondo jokatu ez dugun sei-
nale; ez da Bolognaren errua izango. Plan
Gidaria gure eskuetan dago: graduak euska-
raz eta espainolez ematea gure eskuetan

dago; graduondokoetan hizkuntzen presen-
tzia parekidea izatea gure esku dago. Huts
egiten badugu gure ardura izango da, uniber-
sitatearena eta Eusko Jaurlaritzarena, baina
ez dauka zerikusirik kanpotik datorren
Bologna horrekin.

Eta zergatik zabaldu da beldur hori?

Suposatzen dut oso erraza dela hori esatea eta,
gainera, erakargarria zenbait esparrutan. Baina
Plan Gidarian gradu guztiak euskaraz eta
erdaraz eman behar direla esaten dugunean,
bete egin behar dugu. Beste gauza bat da esan-
dakoa lortzea, ez baita beti erraza. Esparru
batzuetan zaila da profesional euskaldunak
topatzea, medikuntzan edo ingeniarietan, adi-
bidez. Ez da erraza irakasle elebidunak aurki-
tzea. Medikuntzan oso konplikatu da. Baina
berrito diot: guk egin behar dugu hori; gu aha-
legindu behar gara hori lortzen. Inge-
niarritza eskolak emateko irakasle euskaldunak
ez badugu ez da izango Bolognaren errua;
izango da guk ez dugula topatu, ez dagoelako
edo ez dugulako behar besteko ahaleginik
egin. Gure hizkuntza politika aspaldi hasi zen,
Juan Inazio Perezek egin zuen normalizazio
plana, eta dagoeneko hamabi urte pasa dira.
Kontsentsu handia dago unibertsitatean, eta
apurka-apurka joan gara pausoak ematen.
Batzuentzat gutxi eman ditugu, beste
batzuentzat asko...

Zer eskaintzen du on Bolognak?

Irakaskuntza metodologia berria dakar, eta
oso inportantea iruditzen zait hori. Orain arte,



AZKEN HITZA

Euskaraz

“Materiala sortu behar dugu euskaraz. Oso inportantea da eskolak euskaraz ematea, baina hori bezain garrantzitsua da arlo bakoitzerako euskara teknikoa sortzea. Hor apustu gogorra egin behar dugu. Laguntzak badaude. Argi dagoena da, irakasle batek ez badu materiala euskaraz sortu nahi, guk ezin dugula ezer egin. Hemen badago guztiok defendatzen dugun gauza bat: bakoitzaren autonomia. Eskolak euskaraz ematen dituen irakasle batek ez baditu testuak eta irakaskuntza-materiala euskaraz sortu nahi, ez du egingo. Baina hori ez da gertatzen, normalean oso jarrera baikorra izaten dute”.

irakasleen jarrera magistrala zen erabat, “ni naiz dakiena, zuek entzun, eta zorterik baduzue ikasiko duzue zerbait. Gero azterketetan nik egingo dizuet frogak, eta erabakiko dut ikasi duzuen ala ez”. Hori da orain arte egin duguna. Metodologia berri honekin ikaslea benetako subjektu aktibo bihurtzen da: bera da ikasi behar duena, eta irakasleak ikasten irakatsi behar dio. Dena aldatuko da: klase magistralak mantenduko dira, baina ez dira %100 izango. Beste eskola mota batzuk agertuko dira: mintegiak, lanak, proiektuak, talde-lanak... Ikaslearentzat abantailak dakartza. Hori, alde positibo bat. Beste bat: homologazioa. Eta ez uniformazioa. Denok ez gara berdinak izango, titulu guztiak ez dira berdinak izango, baina bai homologatuak. Hori oso interesgarria da mugikortasuna bideratzen duelako. Bolognak mugikortasuna errazten du, ikasleena eta irakasleena. Eta titulazio-mapa ere hor dago: orain arte Madrildik agindutako katalogoaren arabera jokatu behar izan dugu. Baina orain katalogo hori desagertu egingo da, eta unibertsitate bakoitzak autonomia izango du nahi dituen tituluak proposatzeko. Guk diseinatuko dugu gure titulazio-mapa. Asmatuko dugu ala ez, baina gurea izango da, ez kanpotik esandakoa. Bolognarekin Francoren garaitik datorren tituluen egiturarekin amaituko dugu, eta aurrerapauso nabarmena da hori.

Zein alde negatibo ditu?

Badago arrisku txiki bat: bereziki masterretan enpresek izan dezaketen eragina. Merkantilizazioa aipatzen da behin eta berrero, baina hor ere gure kartak mugitzen jakin behar dugu. Guk nahi badugu bakarrik jarriko ditugu graduondokoak martxan. Presioak egongo direla kanpotik? Agian bai, baina presio horiek aztertu, ebaluatu eta erabakiak hartu beharko ditugu. Erakundeen nahiz enpresen presioak direnak direla ere, gure gobernu kontseiluak izango du azken hitza. Arrisku hori aukera

bihurtu nahi nuke. Eta ez dut uste honek euskararekin zerikusirik duenik. Demagun kanpoko enpresa bat prest dagoela dirutza jartzeko graduondoko bat sortzeko, eta master hori alemanez eman nahi dutela. Gure planteamendua masterretan euskararen presentzia parekidea izan behar dela da, beraz, esan beharko diegu: “Alemanez egin nahi duzue? Ados, baina nola bermatuko dugu hau eta hau?”.

Didaktika bide berriek talde txikiagoetan aritzea eskatuko lukete zenbait lizentziaturatan. Bideragarria al da?

Baietz uste dut. Horretan demografiak ere lagundu digu: ikasle asko galdu ditugu azken urteetan,

ez baitira jai. Oraingo egoera aldekoa da. Nik uste posible dela.

Orain arteko politika ez da “zero kostua” izan? Sailei ez zaie behin eta berriz esan Bolognako prozesurako aldaketak edo moldaketak ez diola kosturik ekarri behar unibertsitateari?

Ez dut uste zero kostua duen ezer existitzen denik. Munduan ez dago horrelakorik. Edozein aldaketak ekarriko du kosturen bat. Prozesu honen kostua titulazio-mapa berria zehaztutakoan jakingo dugu, titulazio-mapa horrek eskatzen duena ondo ebaluatu eta gero.

Noizko jarriko da martxan?

Dekretuetan data konkretua ipintzen du: 2010a. 2010/2011 ikasturtean ezingo dugu ikaslerik matrikulatu lehengo karrera zaharretan, egokitzapenek eginda behar dute ordurako. Hala ez balitz, ikasleak matrikulatu gabe geldituko lirake. Titulazio berriak martxan ipintzeko ez daukagu inolako arazorik, izan daiteke 2011n, 2012an... Guk nahi dugun urtean, baina besteekin argi dago, 2010/2011 ikasturterako aldaketa eginda egon behar da, eta prozesu horretan gaude. Titulazio-mapa berria definitzen ari gara eta prozesu guztiak martxan daude. Bete-bete tokatuko zaigu: orain horixe da gure lana, ia %100 horretara gaude, gure lehentasuna da.

Daukagun unibertsitate ereduak ematen du biderik ikasle bakoitzaren dohainak, grinak eta talentuak garatzeko?

Ikasleek jakin egin behar dute unibertsitate erabiltzen. EHUn 45.000 ikasle badaude, 45.000 modu desberdin daude unibertsitatean egoteko. Batzuk tituluaren bila datoz, eta berdin zaie nola; beste batzuk askoz ere gehiago inplikatzeko dira eta edozein ekimenetan hartzen dute parte; beste batzuk arlo zientifikoa

bakarrik inplikatzeko dira; edo arlo kulturalen, edo politikan... Unibertsitateak aukerak ematen ditu, baina ikasleak jakin egin behar du aukera horiek erabiltzen.

Ezagutu dituzu Standfordeko unibertsitatea, Massachusetts-ekoa, Europako beste hainbat... Non dago EHU?

Ni Standforden eta Massachusettsen egon naiz, ranking-aren puntaren puntan. Alde handia dago, eta arrazoi asko daude hori hala izateko: Euskal Herriak ez dauka tradiziozko unibertsitate arloan. Harvard, esaterako, orain dela 400 urte sortu zen. Unibertsitate honek 30 urte dauzka, ez dago tradiziozko, eta gainera ez da behar beste inbertitu unibertsitate honetan. Ikerketan egin behar da inbertsioa, irakas-kuntzan... Distantzia izugarria dago. Gainera, herri honetan akordio minimo bat lortzea oso konplikatu da, eta unibertsitatean berdin gertatzen da. Gauza asko falta zaizkigu oraindik, baina uste dut hemen dena daukagula irabazteko. Ez gara sekula Standforden mailara iritsiko, baina ranking-eko aurreneko 500 unibertsitateen artean sartzen bagara, ni pozik.

Aurreko errektoretza-taldeak ikasleekin gatazka dezente izan zituen: zenbait ikasleri espedienteak zabaldu zizkieten, ikasle-protestetara polizia bidali zuten... Une honetan badago ikasle mugimenduekin gatazkarik? Nola bideratuko da?

Nik ez dakit zer gertatuko den, suposatzen dut laster jakingo dugula, baina niri gauzak hitz eginez konpontzea gustatuko litzaidake. Niri ez zait Ertzaintza Campusean ikustea gustatzen, baina ez zait gustatzen ikasleak gauzak apurtzen edo beste ikasle batzuen kontra erasoak egiten ikustea ere. Protesta egitea posible izan behar da, marko bat topatu behar dugu bakoitzak barruan daukana esateko aukera izan dezan, baina besteren eskubideak eraso gabe.

Zer puntutatik aurrera egiten du traba adierazpen askatasunak?

Argi daukat adierazpen askatasuna gauza bat dela, eta besteon segurtasun fisikoa beste gauza bat. Segurtasun fisikoa da garrantzitsua.

Hori bermatzeko beharrezkoa da indar poliziala?

Ez. Baina beharrezkoa bada erabili egin behar da. Bakoitzak barruan daukana esan ahal izateko bideak jartzea gustatuko litzaidake, baina gobernu organoak hor daude, eta funtzionatu egin behar dute, hori ezin da oztopatu. Ikasleak klasean badaude ezin da sartu eta eraso,

hori kontrolatu egin behar dugu. Nik protestak begi onez ikusten ditut, edozein motatako protestak, baina, betiere, gainerako pertsonak eta gobernu organoak errespetatuz. Ni errektorea naiz eta errektore gisa ezin dut begi onez ikusi, esaterako, ikasle batzuek klaustroa oztopatzea. Nire eginkizuna da gobernu organoek funtzionatzen dutela bermatzea.

Ikasleen %80 abstenitu zen azken hauteskundeetan. Zeri dagokio abstentzio tasa altu hori? Kezkatzekoa iruditzen zaizu?

Abstentzio tasa hori oso normala da unibertsitate guztietan, baina normala izateak ez du esan nahi kezkatzekoa ez denik. Nik parte-hartze benetakoa izatea nahi nuke, eta ahalegina egingo dugu: zentroetako ikasleen ordezkariak bultzatu nahi dugu, campusetako ikasle ordezkariak, ikasle-kontseiluak... Eta komisio bat ipini nahi dugu martxan ikasleen eta errektore-ordeen artean, ikasleen gaiak eztabaidatzeko.

Abstentzioak sala dezake ikasleak ez direla instituzio horren parte sentitzen.

Agian hori da. Standford-en eta M.I.T.-n (Massachusetts Institute of Technology) ez da halakorik gertatzen, eta pribatuak dira! Ikasleek izugarriko dirutza ordaintzen dute eta, hala ere, unibertsitateko parte sentitzen dira, eta betirako, gainera. Hemen publikoa da, ez da ia ezer ordaintzen, parte-hartzea bultzatzen dugu eta ez dugu lortzen. Erreferentziazko unibertsitate horietan matrikula hemen baino 100 aldiz garestiagoa da, han ez dago gobernu organoetan parte hartzeko inolako aukerarik, ez dago titulazioei buruz hitz egiterik, ez dute bozkatzetik... eta parte sentitzen dira. Ez dago ulertzerik.

"Eztabaida politikoak ez nau inoiz motibatu" irakurri dizut. Baina aurretik hitz egin dugun guztia ez al da politika?

Politika unibertsitarioa. Nik esaten dudana da alderdi politikoen arteko eztabaidak ez nauela motibatzen, baina politika unibertsitariok bai, eta eztabaidatzeak ere bai. Askok gustatzen zait eztabaidatzea, eta oso gustura sentitzen naiz kalakan, baina nahiago dut unibertsitateari buruz jardun, edo dantzari buruz, edo liburu bati buruz, idazle bati buruz... Hori gustatzen zait, baina ez dakit nongo presidentek zer esan duen eta krisia nola konponduko duen... Horrek ez nau motibatzen. ■

www.argia.com/multimedia
helbidean, elkarrizketaren bideoa.